

berriak

Triforio

-tik



araba
álava



Katedralaren eraikuntzaren bilakaera, Errealitate Birtualeko esperientzia berria

Santa Maria Katedrala Fundazioak hiru ikus-entzunezko berri sartu ditu errealitate birtualeko bisita gidatuen eskaintzan, eta Santa Maria eliza zaharraren gainean eraikitako egungo tenpluaren eraikuntzan eta ondorengo bi mendeetan egindako lanetan murgiltzeko aukera emango die bisitariari.

Arabako Foru Aldundiko Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Sailak finantzaturako 360°-ko murgiltze bideo berriak joan den uztailaren 12an aurkeztu ziren, eta joan den urteko urrian, lehen hiru piezak ezagutarazi zirenean, abian jarritako ekimena osatzen dute: hasierako Gasteiz zaharraren bilakaera Santa Maria plazatik, hirira eta haren ingurura sartzeko iparraldeko atea eta Gasteizko hirigintza-garapena.

Ikus-entzunezko elementu murgiltzaile berriek proposatzen duten denboran zeharreko bidaia hiru etapatan dago banatuta. Lehenengoa XII. mendean hasten da eta Santa Maria eliza erromanikoaren barruan kokatzen da. Eliza horren gainean eraiki zen gaur egungo katedrala. Eszenako elementu protagonista absidea da, bere alda-rearekin eta hormaren erdian dagoen eraikineko leiho bakanetako batekin.

Bigarren etapa gaur egungo Santa Maria-aren eraikuntzan zentratzen da, antzinako elizaren eta gaur egungo tenpluaren eraikuntzaren hastapenen arteko trantsizio-une batean. XIII. mendean gaude jada, eta erdi eginda dauden Santa Maria berriaren hormak hautematen dira jadanik.

Azkenik, hirugarren bideoa katedral berriaren barruko obrei dagokie. Kronologikoki, eszena hau XIV. mendean gertatu zen, Santa Maria tenplu berria eraikitzeko lanen funtsezko une

batean, gurutzadurako gangak altxatzen hasiak baitziren.

Katedralaren nabera eta hiriko harresira bisita barne hartzen duen errealitate birtualeko esperientzia berri honetan interesa duten pertsonen "Errealitate Birtuala eta Harresia esperientziarako" erreserba egin behar dute katedralaren webgunean edo **945 25 51 35** telefono-zenbakian.

Ikusi hemen 360° bideoak:
<https://labur.eus/xLbry>



Kontzertuz betetako hilabetea

Uztailean, kultur jarduera handia izan da katedralean, eta musikak protagonismo berezia izan du. "Kontzertuak Katedralean" ekimenak, Xacobeo urtearen ospakizunak eta erdi aroko ukitua duen "Cantaderas" proposamenak aparteko auditorio bihurtu dituzte Santa Maria elizpea eta nabea.

"Kontzertuak Katedralean"

Jazzargia Kultura eta Musika Elkartearen, Laboral Kutxaren eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren ekimen horrek ondo bereizitako bi proposamen hurbildu ditu aurten Gasteizera. Batetik, Jose-te Ordoñez gitarra-jotzailearen "Transeúntes" lana, pantaila erraldoi batean aldi berean proiektatzen den komiki batek lagunduta. Bestalde, "Las Negras del 45", Estatuan ahots-jazzari eskainitako emakume-hirukote bakanetako bat. Inprobisatzeko duen gaitasunarengatik nabarmentzen da.



Cantaderas

Uztailaren 9an, "Cantaderas" taldeak Erdi Aroko musika tradizionala eskaini zuen. Ana Arnaz, Anne Marie Lablaude, June Tellexea eta Paloma Gutiérrez del Arroyok osatzen duten taldeak Erdi Aroko idatzizko errepertorio idatzizko pieza batzuk ahozko tradizio herrikoiko beste batzuekin batu zituen kontzertua. Horrela, lotura berezia sortu zen IX. mendetik XIII. mendera bitarteko kantatu erlijiosoaren eta XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Iberiar penintsulan bildutako kantutegien artean.



Xacobeo urtea

Xacobeo Urtea ospatzeko Katedralaren Ate Santuaren irekiera dela eta, Carlos Nuñez gaita-jotzaile galiziar ospetsuaren kontzertua izan zen tenpluan. Ekitaldia uztailaren 3an izan zen, Santiagoko erromesek katedralera sartu ahal izateko "barkamenaren atea" izenez ezagutzen dena ere erabili ahal izan zuten egunari amaiera emateko.



Udarekin batera, "Zinema elizpean" itzuli da

Santa Maria plaza aire zabaleko auditorio bihurtuko da berriro udan, "Vitoria-Gasteiz, una ciudad de cine" proposamenari esker. Zehazki, "Zinema elizpean" ekimenak lau film proiektatu ditu, uztailaren 30eko eta 31ko eta abuztuaren 27ko eta 28ko gauean. Osaun egoera dela eta, edukiera kontrolatu egingo da eta lekua erreserbatu egin beharko da aldez aurretik, doan,

vitoriagasteizciudaddecine.com helbidean.



Egitaraua

Uztailak 30	22:00etan	Lur eta Amets
Uztailak 31	22:00etan	Dios mío, ¿pero que te hemos hecho...ahora?
Abuztuak 27	21:15ean	La Princesa prometida
Abuztuak 28	21:15ean	Padre no hay más que uno (2)